

Herritarren mahaia

Martxoaren 14an ospatutako bileraren akta

LEKUA: Azpeitiko udaletxean

ORDUA: 19:00etatik 21:15ak arte

BERTARATUTAKOAK:

Itziar Abarisketa (Ezagutza Gunea), M^a Jesús Agirre (hezkuntza), José M^a Aizpurua (lehen sektorea), Aitor Aranguren (udal zinegotzia/Unibertsitatea), Nerea Azkue (giza arloa), Mari José Azkue (auzo alkatea), Iñaki Bastida (enpresa), Begoña Beobide (Loiola Berrikuntza Fundazioa), Garbiñe Bereziartua (unibertsitatea/Azpeitia zero zabor), Javier Etxeberria (Gureak), Patxi Gurrutxaga (auzo alkatea), Aitzol Iparragirre (hezkuntza), Amaia Irazusta (lehen sektorea), Alberto Izagirre (hezkuntza), Nekane Larrañaga (unibertsitatea/etorkinak), Miren Larrea (unibertsitatea/enplegua), Jesús Mujika (Iraurgi Lantzen), Xabier Mujika (auzo alkatea), Ibon Odriozola (enpresa), Anjel Mari Oiarzabal (auzo alkatea), Haizkurgi Uzin (herritarra), Ana Aizpuru (herritarra), Jaione Valverde (herritarra/Iraurgi Lantzen), Nekane Arrieta (herritarra/Iraurgi Lantzen), Mikel Aranbarri (herritarra), Naiara Zubikarai (lehen sektorea/Urkome), Idoia Agirre (hezkuntza), Araceli Ardanaz (hezkuntza), Eneko Etxeberria (Alkatea), Izaskun Ceciaga (udal teknikaria).

DINAMIZATZAILEAK:

Ana López eta Ainhoa Mitxelena (Minuartia Enea/Ikertalde laguntza teknikoa)



GAI ORDENA

1. Alkatearen agurra eta prozesuaren aurkezpena
2. Testuingurua, aurrekariak eta prozesuaren gakoak aurkezpena
3. Aurreikusitako bilerak eta egutegia
4. Udalerriko AMIA: ahultasun, mehatxu, indargune eta aukerak identifikatzea

LABURPENAK

1. Alkatearen agurra eta aurkezpena

Hasteko, Alkateak bertaratutakoei ongi etorria eman eta **Ekintza Plan estrategikoaren prozesuaren hasieraren berri** ematen die, iraunkortasunaren printzipioetan oinarritutako den plana eta egungo krisialdi egoerari erantzuna ematen saiatuko dena.

Plan berri honek **2025** urtean jarriko du bista. Honela, helburu estrategikoak, erronka nagusiak eta udalerriko ikuspegia formulatzeko epe luzera begira egin ahal izango da, planari proiektzio berri bat emateko asmoz.

Honetaz gain, prozesua aurrera eramateko sortu diren **mekanismoak** azaltzen ditu: mahai teknikoa (udal eta eskualde mailako teknikariek osatutakoa), politikariak eta herritarrak. Herritarrei dagokionez eta sektore guztien ordezkapena bermatzearren, deialdi ireki bat egiteaz gain, eragile batzuk ere aukeratu izan direla azaltzen da.

Egutegiari dagokionez, prozesu honi 2012ko amaieran hasiera eman eta uztailan amaitzea aurreikusten dela aipatzen du. Bitartean, herritarrekin batera lau parte-hartze bilera egingo dira fase bakoitzean beraien ekarpenak jaso ahal izateko.

2. Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren berrikuste prozesuaren gakoak

Jarraian, laguntza teknikoak udalerriko Tokiko Agenda 21eko **aurrekariak eta iraunkortasunaren arloan izandako ibilbidea** aurkezten ditu. Azpeitia arlo honetan aitzindari izan dela aipatzen da eta azkeneko hamarkadan beti iraunkortasun gaietan aurreratuago ibili izan diren udalerriekin batera pausuak eman dituela azpimarratzen da. Honekin batera, iraunkortasunaren aldeko planek udal mailan burutzen diren plan sektorialak barne hartzen dituztela aipatzen da, ereduak aipatuz.

Aurrekariak aurkeztu ondoren, berrikuste prozesuaren inguruko **metodologiaren oinarriak** aurkezten dira.

Ekintza Plan berriak **izaera estrategikoa** izateko elementu guztiak izango ditu, hau da, ikuspegi bat, xedeak, helburu eta lerro estrategikoak, programa operatiboak eta ekintzak. Formulazio estrategikoari dagokionez, 2025 urtera begira egingo dela aipatzen da. Ekintza Planaren formulazioa, hau da, ekintza konkretuen planteamendua, epe motzago batekin egiteko beharra ikusten da, 2020 urteko epearekin, egungo egoera aldakorra dela eta, zaila egiten delako epe luze baterako ekintzak definitzea.

Ondoren, prozesu honen bitartez jorratuko diren gaiak azaltzen dira, arlo soziala eta ekonomikoari lotuta daudenak. Ingurumenari lotutako gaiak (energia eta hondakinak) Ekintza Plana formulatzeko fasean bakarrik jorratuko direla zehaztuz.

Prozesuaren **hiru elementu nagusiak** azaltzen dira: herritarren parte-hartzea, udal teknikari eta politikarien ekarpena eta laguntza teknikoarena. Hiru elementu hauen arteko oreka bat bilatu behar dela azaltzen da, prozesua horietako elementu bakar batean oinarritzea ekidinez.

Jarraian, proiektuaren **fase bakoitzeko nondik norakoak** azaltzen dira: diagnostikoa, formulazio estrategikoa eta ekintza plana. Fase bakoitzean udal teknikari, politikari eta herritarren ekarpenak jasotzeko bilerak antolatuko dira, prozesu osoan zehar aipatutako oreka bilatuz.

Bestalde, prozesu honetan parte hartzen duten eragileak zeintzuk diren eta horien guztien arteko lotura-puntuak zeintzuk diren azaltzen da, Denon Artean ekimenarekiko lotura zuzena aipatuz.

3. Aurreikusitako bilerak eta egutegia

Proiektuaren **egutegia** azaltzen da, aurreikusita dauden bilerak aipatuz.

Horrela, eta laburpen moduan, urtariletik apirilaren hasiera arte diagnostikoa burutuko da. Behin diagnostikoa amaitutzat ematen denean, Aste Santua ondoren, formulazio estrategikoa egingo da, hau da, ikuspegia formulatu, xedeak finkatu eta helburu estrategikoak zehaztuko dira. Hortik abiatuta eta apiriletik ekainaren amaierara arte, ekintza plana formulatu egingo da, uztailaren hasieran udalbatzan onartua izateko aurreikuspenarekin.

Herritarren mahaiarekin beste hiru bilera ospatuko dira aurrean aipatutako faseei lotuta.

4. Udalerriko AMIA: ahultasun, mehatxu, indar-gune eta aukerak identifikatzea

Jarraian, laguntza teknikoak AMIA dinamika azaltzen du:

1. Bi talde osatuko dira
2. Banakako lana: bakoitzak, fitxa batean, AMIA osatzeko momentuan bururatzen zaizkion ideiak idatziko ditu.
3. Indar-ideien bila: ideia horiek, hitz batekin edo bi hitzekin, “Post-it”-etan idatziko dira, eta bakoitzak bere “Post-it”-ak horma-irudi batean itsatsiko ditu.
4. Dinamizatzaileek (laguntza teknikoak), ideia guztien irakurketa eta asoziazioa egingo dugu, indar-idea nagusiak definituz eta parte-hartzaileekin adostuz.
5. AMIA/DAFO osatu



Dinamika luzatu zenez, azkeneko partean ezinezkoa izan zen guztion artean AMIA osatzea. Laguntza teknikoak talde bakoitzean adostutako indar-ideiak eta ekarpen nagusiak azaldu zituen.

Jarraian, jasotako ekarpenak azaltzen dira, AMIA matrizea osatuz:

AHULEZIAK

- Ikasketak ez dituen herritarren multzo bat dago, orokorrean adinean aurreratuagoak daudenak. Pertsona hauen laneratzea nahiko zaila ikusten da.
- Heziketa gehiago baloratzeko eta zenbait kasutan berriztatze/eguneratzeko beharra.
- Azken urte hauetan enpresa ugari itxi da, batez ere etxegintza/egur sektoreari lotuta zeuden enpresak. Hau dela eta, krisiaren ondorioz, udalerriko ehun produktiboa ahulduta gelditu da.
- Mugikortasunerako zailtasun handiak daude eskualdean eta honek sektore ezberdinetan du eragina: turismoan, industria sektorean, etab.
- Ekintzailatza arlo zehatz batzuetara bideratzen da (zerbitzuetara batik bat), balio erantsi handiago sortzen duten beste jardura batzuk alde batera utziz.
- Hondakinen gaia oso politizatua dago.

MEHATXUAK

- Udalerriko egungo lanbide-heziketan dagoen eskaintzak ez die tokiko enpresek dituzten beharrei ezta beraiek eskatzen dituzten profilei ere erantzun zuzena ematen.
- Udalerrria lurraldeko berrikuntza gune handienetik kanpo eta urrun dago.
- Eraikuntzak eta sektore honekin erlazionatutako industriak (egurra eta altzarigintza esaterako) pisu handia dute udalerrrian
- Industria arloa sektore helduko enpresez osaturik dago nagusiki.
- Mugikortasuna errazteko behar diren neurriak jartzen ez badira, hobeto komunikatuta dauden alboko eskualdeek abantaila egoera batean egongo dira eremu ezberdinetan.
- Etorkinen etorrerak euskararen erabileran sor dezakeen eraginaren beldurra dago.
- Eleaniztasunerako joera eza dago.
- Arlo ezberdinetan izaten ari diren diru-laguntzen murrizketak (arlo publikoan zein pribatuan) eta burokratizazio maila altua.
- Krisialdiak sortu duen egoera emozionala, inpotentzia sentipena.

INDARGUNEAK

- Herri eroso da bertan bizitzeko eta kokaleku egokian dagoena.
- Herriko parte-hartze dinamika indartsua da. Eremu ezberdinetan lanean ari diren talde ugari dago. Kohesio eta elkarlana gero eta zabaldago daude.
- Euskararen ezagutza oso altua positibotzat jotzen da, gai hau udalerriko identitateari lotzen zaiolarik.
- Udalerriko ikasleen ezagutza-maila ona da, Gipuzkoako batez bestekoarekin konparatuz.
- Turismo baliabide garrantzitsuak daude udalerrian (Gipuzkoan bisitarik gehien jasotzen dituen baliabideen artean dago Loiolako Santutegia).
- Kultur dinamika aberatsa da eta tokiko taldeen parte-hartze eredu batean oinarrituta dago.

AUKERAK

- “Denon Artean” ekimenak sortarazi duen dinamika berriak, udal kudeaketan herritarren parte-hartze modu berri bat sortzen eta sendotzen lagundu dezake.
- Lehen sektorean lantzen ari diren ekimen ezberdinek garapen eredu berri bat bultzatzeko pausu inportanteak dira, tokiko ekoizpenean eta bertako produktuen kontsumoan oinarrituta daudelarik.
- Berrikuntza prozesuak enpresen barruan lantzeko pausuak.
- Balore positiboak: lanerako jarrera positiboa, lan-kultura eta ekintzailetasun-kultura nahiko zabalduta daude udalerrian.